kitto! kirol

622 zkia. EIBARKO ASTEKARIA 2008-I-11



**FERNANDO BEORLEGI:** Domekan hil zen errealitatea moldatzen artista zen margolaria




# Eibarko Kirol Sari berezia Petrusentzat

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA
Tel: 943 70 25 40
KEIN GROUP
C/ Toribio Etxebarria, 3 - 2º EIBAR
Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 77 74
Email: keingroup@keingroup.com
KOMUNITATEAK
- Auzo komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa
AHOLKULARITZA
- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak

# OSASUN

## Dentistak

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57
AMAÑA
HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika
Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...
TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - Lok. Tel: 943 20 18 51

... 15 urte eibartarren irribarrea pizten
Bista Eder
CLINICA DENTAL • HORTZ KLINIKA
Bista Eder, 19 - behea
Tel. 943 70 00 82
943 20 84 75
✓ Inplanteak
✓ Ortodontzia
✓ Zuritzea
✓ Hortz-estetika
grupo innova dental

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA
09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO
Calbeton 19 - 3. ezk. | Tfnoa: 943 20 72 17

IRAZABAL Hortz-Klinika
J. Irazabal, J. Etxaniz eta S. Sierra DOKTOREAK
RPS 04/02
ZERBITZUAK
Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua
ABANTAILAK
- DESKONTU BEREZIAK:
Mutua eta Aseguruak, enpresak...
- IMQ
J. Etxeberria, 12 – 1. esk.
Tel. 943 208552

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA
Untzaga 5 - 4. .......... 943 70 23 85
EGUNERO

## Dentistak

UNTZAGA
hortz-klinika
egunero
Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

## Dietetika

Nutrizio eta Dietetika Zerbitzua
Nutrieibar
Aurora Cid
Larregizko pisua eta obesitatea
Umeen obesitatea
Nutrizio-berreziketa
Dieta pertsonalizatuak
Kontsulta astearte eta ostiraletan
Ordua hartzeko: 647 823 971
San Agustin, 2-4
Bulegoak I Lokala

## Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA
* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
* Logopedia
* Inkontinentzia urinarioak
* Kirol medikuntza
* Ama izateko prestakuntza
Muzategi 2 (EIBAR) — Tfnoa. 943 20 34 46
San Ignacio 2 (ELGOIBAR) — Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato Eibarrés
Errehabilitazioa eta Fisioterapia
ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea
Urkizu 9 - behean
EGUNERO (08.00 - 19.30)
Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxa - 943 12 03 58

## Fisioterapia

- FISIOTERAPIA
- OSTEOPATIA
- MASAJE TERAPEUTIKOA
C.F. Errasti
705 Koleg. zkia.
Zuloagatarren, 7
Tel. 605 71 49 88 / 943 70 15 61

OSKAR LOPEZ DE GUEREÑU
18 Kolegiatu zbkia.
FISIOTERAPIA GUEREÑU
EIBARKO TXIKITO, 12
BEHEA ESKUMA
TEL. ETA FAXA:
943 12 14 80

FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zkia.
San Agustin, 2-4 - M lokala
Tel. 622 14 58 58

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA
– fisioterapia
– osteopatia
– errehabilitazioa
Juan Gisasola, 14
Telefonoa: 943 12 70 78

MUGI FISIOTERAPIA
Eider Mugica Aristondo
669 735 925
Egigurentarren, 18

## Kirol medikuntza

KIROL MEDIKUNTZA
Indartu
ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA
• Odol analisiak
• Elektroterapia
• Fisioterapia
• Urgentziak
• Esfortzu probak
• 3. adinekoen mantenimendua
• Kontsulta medikoak
• Errekonozimendu medikoak
• Masaje terapeutikoa
• Kirol masajeak
ERA GUZTIETAKO MUTUA ETA ASEGURUEKIN KONTZERTATUA
Diputazio 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16

Hemen zure tokia izan nahi baduzu
deitu 943-206776 telefonora

# GIDA

## Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmologia Avanzada

● Jose Alberdi Alberdi

OKULISTAK

EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartea
Tfnoa: 943 20 19 82

Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

## Ortopedia

**ARRATE OR-TOPEDIA**

ORTOPEDIA TEKNIKARI TITULATUA

Oin unitatea ordenagailu bitartez
Tailer teknikoa
Kirol medikuntza
Laguntza teknikoak

*Zuloagatarren, 7*
*Tel./Faxa: 943 70 06 31*
*ortopedia@ortopediaarrate.com*
*www.ortopediaarrate.com*
*OSAKIDETZA eta LAGUN ARORekin egiten dugu lan*

## Osteopatak

lasaituz
esku terapiak

OSTEOPATIA
KIROMASAJEA
REFLEXOLOGIA

Iñaki Azpitarte
etxez etxeko zerbitzua
659107023
Zezenbide, 1 - behea

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

943 12 14 93
T. Etxebarria (Dos de Mayo), 2 - 1.

Bidebarrieta 48
EIBAR
943 203050

Erdiko kale 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 zenb. kolegiatua)
Rosarito Rodriguez (125 zenb. kolegiatua)
Amagoia Zubizarreta (122 zenb. kolegiatua)

PODOLOGOA

Maider
Lopez
Etxeberria

*Arragueta 2 Bis-B, Behea C*
*Tfnoa. 943 82 04 88*

*65 Kolegiatu zbkia.*

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

*Iñaki Rivero Zabaleta*

*Calbeton, 4 - 2.*
*(Untzagako dorrea)*

*Tel. 943 20 86 41*

## Psikologoak

Ana Oiarzun

- Psikologia
- Sexologia
- Bitartekaritza lanak (bikotea, familia...)

Blas Etxebarria 2 - behea
Telf. 943 20 08 20 Mobila. 635 74 62 50

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
(Ume eta helduendako)

**Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

UME ETA HELDUENDAKO
**PSIKOLOGIA KABINETEA**

ARRATE GARITAONANDIA

- ESTRESA
- ALZHEIMER-TERAPIA
- ANTSIETATEA
- IKASTEKO TEKNIKAK
- DEPRESIOA
- UMEEN ARAZOAK
- ERLAJAZIOA
- AUTOESTIMA
- FOBIAK
- MEMORIA LANKETA

AURRERA EDIFIZIOA 943 20 22 66
Urtzaile 1, 1. Eskuma 646 233 182

Haur eta Helduentzako
PSIKOLOGIA - PSIKOTERAPIA
RPS: 313/98

Oscar Mondragon Lili
Yolanda Cuartero
Mikel Diez Oregi

ORDUTEGIA: 10.00 - 12.00 / 16.00 - 20.00

Bista Eder 6 - 1. ezk. ☎ 943 70 26 62


PORTALEA TABERNA
Astelehenetik ostiralera:
Zabalik 07.30etatik aurrera
EGUNEROKO MENUA
Asteburuetan: AFARIAK
Igandeetan ITXITA
GOSARIAK
PINTXOAK
BOKATAK
PORTALEA
TABERNA
BISTA EDER, 10 TEL. 943-206868


MATRIKULA ZABALIK
Ikastaro presentzialak:
- Ordutegi eta maila guztiak
- EGA eta HABEren azterketak
balio ofizialarekin (Administrazio, Osakidetza eta Ertzaintzarako perfilen baliokideak)
- Zibergela: ordenagailuak, internet...
Ordenagailuz eta zure kontura:
- BOGA programa informatikoa
Egizu euskaraz!
nahi baduzu...
egingo duzu
2007/2008
euskara ikastaroak
EIBARKO
UDAL
EUSKALTEGIA
Bista Eder 10 -PORTALEA-
Telefonoa: 943 70 09 12
Faxa: 943 82 00 89
euskaltegiaeibar@telefonica.net

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskera gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kosta egiten zaigu, ez dugu gazteleran bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gatza eta berakatza berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

**DEMASA.-** Handia, sekulakoa. *"Aboziñau demasa haiz hi behintzat". "Orduan egunian demasak egin zittuen".*
**DEMONIO ARRAIXUA!.-** Interjekzioa. Hasarrea adierazteko erabili ohi da. *"Beti lapurretan, demonio arraixua!".*
**DEMONIO.-** Okerra, bihurria. *"Bai mutiko demoniua, baietz esan eta etorri ez!".*
**DEMONTRE.-** Beste hitz gordinagoen ordez erabilitzen den interjekzioa. *"Ze demontre edo ze arraixo dok hori!".*

## IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

### MILLAKA KOLORE

*Badira urte bi Eibartik alde egin nebala, ikasketak amaittu eta nere kontura bizitzia hautatu nebala. Aldaketak gauzen balixua erakutsi desta, eta nere izaeria libreki aukeratzeko paradia izan dot.*

*Leku ugaritan bizi eta gero, Eibarrera bizitzera bueltatzeko gogua sortu jatan, baiña hementxe aurkittutako panoramia ikusitta gogo guztiak juan jataz, eta hauxe da nere gutunaren arrazoia. Eibarko gazte gehixenen jarreria ikusitta, gaztiak 'letargo' batian bezala ikusi dittut, iñolako aspiraziño barik eta danak patroi beraz ebagitta; zeozer desbardiña pentsatzia puzzlian enkajau barik gelditzia da. Horrez gaiñera, gaztien artian daguan biolentzia gosia aittatzekua da. Eta, nere ustetan, eta garbi geratu dadilla gutun hauxe nere iritzi bat bakarrik dala, aniztasuna biharrezkua da! Eta bakotxak dauka aukeratzeko erabagixa! Gaztiak, esna gaittezen!*

*Muxuak eta laztanak nahi dittuanarentzat...*

**Beñat Garate Martín**

### BASERRIETAKO KARTAK

*Eibarko Udaleko baserrietako ordezkaritzak hauxe jakinarazten dizue: orain zuen kartak Posta etxean jasotzen dituzuela eta hemendik aurrera ere hara joan behar duzuela kartak jasotzera. Horrela egitea erabaki dugu Udalaren eta Posta etxearen artean.*

**Nerea Alustiza (Baserrietako zinegotzia)**

### URTEBERRI EGUNEKOARENGATIK ESKERRAK EMONEZ

Urte berriari ongi-etorria emateko, Urkorako igoeran parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, egun horretan izandako portaera eta jardunarengatik. Ixua jatetxekoengatik hasita, hamarretakoa hartzera joan ziren beste guztienganaino. Gainera, eguraldia ere lagun izan genuen eta azken urteotan baino jende gehiago inguratu zen; horregatik, denon kolaborazioarekin, hain gurea den ohiturarekin jarraitzeko aukera izango dugu hemendik aurrera ere. Eskerrik asko.

**Eibarko Klub Deportiboa eta ...eta kitto!**

### ZORIONAK

Zorionak eta txalo haundi bat abenduaren 31n Portaleko aretoan antolatu zenuten kirol sarien XIII. edizioarengatik.

Oso ekitaldi ederra izan zen, jende guztia oso pozik irten ginen. Zuen errua ez da izango, baina jendearen artean bolo-bolo esaten zen Portalea oso txikia gelditu zela horrelako zita baterako, Coliseoan egin beharko litzatekela. Zertarako dago ba Coliseoa? Donostiako Orfeoia eta abarretarako ala Eibar eta eibartarrontzako? Alkate jauna eszenatokian egon zen eta uste dut konturatuko zela zein toki gutxi zegoen hainbeste jenderentzako. 2008an Coliseoan egitea aukera ona izango litzateke.

Zorionak eta baita ere txalo haundi bat urtean zehar egiten dituzuen ekitaldi eta euskararen aldeko guztiengatik, jarraitu horrela.

**Jesus Mari Murua**

### KIROLKITTO! ETA COLISEO

Jesus Maria Muruari eskerrik asko lehenengo eta behin, ...eta kitto!k kirolkitto antolatzen egindako lana horrela eskertzeagatik.

XIII. edizioa bete du aurten Kirolkitto! Sari banaketak. Urteroko moduan Portaleko Areto Nagusian antolatu zuen …eta kitto! Euskara Elkarteak ekitaldia. Arrakasta handiko sari banaketa izaten da, eta jende asko batzen gara Portalean. Aurten Coliseon egiteko aukera aztertu genuen, baina Portalean eginda ere gastu asko sortzen dizkigu ekitaldiak (sariak, piskolabisa...); hori guztia 200 pertsona inguru batuta. Coliseoan eginez gero, 500 pertsonara arteko lekua dagoela ikusita, gure gastua izugarri igoko litzateke. Horregatik erabaki genuen Coliseoa ez erabiltzea eta, 13 urtean egin dugun moduan, Portalean antolatzea.

**...eta kitto! Euskara Elkartea**


...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA:**
Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar
**TELEFONOAK:**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
**FAXA:**
943 20 28 72
**Astekariaren E-MAILak:**
erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com
**Elkartearen E-MAILak:**
elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**
Itziar Albizu
Jose Luis Gorostegi
Silbia Hernandez
Koldo Mitxelena
Ekhi Belar
**ADMINISTRAZIOA:**
Marisol Uriarte
**KOORDINATZAILEA:**
Koldo Mitxelena
**ERREDAKZIO-BURUA:**
Silbia Hernandez
**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**
Jose Luis Gorostegi
**ARGAZKI ARLOA:**
Leire Iturbe, Silbia Hernandez eta Ekhi Belar.
**HIZKUNTZA ARDURA:**
Juan Andres Argoitia
Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA:**
Itziar Albizu
Belen Ulazia
**Tfnoa:** 943 20 67 76
**AZALA:**
J.L. Gorostegi
**BANAKETA-ARDURADUNA:**
Ihintza Fernandez
**TIRADA:**
***8.000 ale***
**INPRIMATEGIA:**
GERTU koop. (Oñati)
**COPYRIGHT-A:**
...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA:**
SS/430/92
ISSN:
1132 - 1679



*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*



EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa

**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria**

# Erregeen kabalgata arrakastatsua





LEIRE ITURBE

Aurten berritasun handiak egin dituzte Erregeen kabalgata suspertzeko asmoz. Horrela, urtarrilaren 5ean, Errege egunaren bezperan, Eibarko Balletak, Ipurua Kiroldegiko Dantza Garaikideko taldeak eta Ipurua Gimnasia Erritmikako taldeak emanaldia eskaini zuten Astelena frontoian. Jende ugari bildu zen pelotaren 'katedralean' eta aurrez aipatutako taldeen dantzak ikusi ahal izan ziren.



LEIRE ITURBE

Astelenako ekitaldiaren ostean, jendea Untzagan batu zen. Han, ume eta guraso askorekin batera, Errege Magoak zeuden itxaroten. Horrela, karrozara igo eta kalejira egin zen Untzagatik Urkizura arte eta buelta. Behin buelta guztia eman eta gero, udaletxeko patioko ateak ireki zituzten, umeek hango eskaileretan Errege Magoekin berba egin ahal izateko. Gainera, Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek opariak eskura eman zizkieten gutuna idatzi eta zozketa bidez aukeratu zituzten hainbat umeri.

# Merkataritza suspertzeko plana

Martitzenean datozen lau urteotan herriko merkaritza suspertzeko duten egitasmoa aurkeztu zuten udaletxean. Ikei enpresak herriko merkatal errealitatea aztertu berri du eta enpresa hori ordezkatzen zegoen Ramiro Garciak ikerketatik eratorritako ideiak azaldu zituen, Eusko Jaurlaritzako ordezkariarekin, Mertxe Garate Merkataritza zinegotziarekin eta Iñaki Arriola alkatearekin batera. Eibarrek iaz 323.000 euroko laguntzak jaso zituen sektoreari bultzada emateko eta ildo beretik jarraitzea espero dute. Eibarren gaur egun 464 denda eta 158 taberna daude eta, beraz, inguruko beste herrietan baino dentsitate haundiagoa dauka 3. sektoreak. Horren adierazle omen dira El Corte Inglés eta Eibar Boulevard proiektuak. Hala ere, merkataritza hedatzeko traben artean aparkaleku faltarena nabarmendu zuten. Horri irtenbidea emateko hainbat kaletan TAO ezartzeko aukera aztertzen dihardute.



EKHI BELAR

# Gaste-ren otarra KTBra



SILBIA HERNANDEZ

Abenduaren 22ko Gabonetako Loteriarekin batera zozketatutako Gasteren otarra KTB-ko langileek eskuratu dute, 6.381 zenbakiarekin. Bigarren otar bat ere banatzekoa zen, baina irabazlea ez da epe-barruan agertu eta sari barik geratuko da. Argazkian KTB-ko Lorena Lamas pozarren ikus daiteke, saritutako txartela eskuan duela. Zorionak eta on egin!

# Dendarien Elkarteko gabonetako zozketaren irabazleak

Eibarko Dendarien Elkarteak gabonetako zozketa egin zuen orain egun batzuk eta Encarna Sampayo eta Tina Soto izan ziren garaileak. Bakoitzak 3.000 euroko saria jaso zuen erosketa txarteletan, herriko dendetan erosketak egin ahal izateko. Erosketak ahalik eta bizkorren egiteko, Elkarteak automobila laga zien, denda batetik bestera ibili ahal izateko.



FELIX MORQUECHO



# Urte barrixarekin aillegau jaku Ekhi

Marisol lankidiak titulo barrixa lortu dau: amama. Urtarrillaren 3an aillegau jaku Ekhi Cobos Fernandez. Abendua "porra"k egitten pasau dogu, eta badakigu zeiñek irabazi daben, baiña dana ez dogu kontauko ba! Zorionak Haizea eta Gorkari etxian dakazue-eta honezkero txikixa. Baitta aitxitxa Julian, amama Marisol, tio Ian eta tia Ihintzari... birramamei eta Oreretako famelixa guztiari.

# NANa, Irunen eta Donostian

Aurrerantzean NANa atera edo berritzeko Irun edo Donostiara joan beharko dute gipuzkoar guztiek. Gobernuko Gipuzkoako Azpiordezkaritzatik aditzera eman dutenez, Nortasun Agiri Nazionala Eibar, Zarautz, Tolosa, Azpeitia, Beasain eta Arrasaten egiteko "arazo teknikoak" daude eta, horregatik, agiriarekin lotutako tramitazio guztiak Irungo eta Donostiako komisarietan egingo dira. Bulego bietan aldez aurretik zita eskatuta hartuko dute jendea. Hitzordua eskatzeko telefono zenbakiak hauek dira: 943449838 eta 943449839 Donostiako bulegorako (08.30etatik 14.30etara) eta 943639549 Irungo bulegorako (09.00etatik 14.00etara). Agiria, berriz, 09.00etatik 17.00etara egingo dute astelehenetik eguenera bitartean eta 09.00etatik 14.00etara barixakuetan. Gure herrian orain arte berritutako agiriak Eibarko bulegoan jasotzeko aukera izango da otsailaren 15era arte. Hortik aurrera Donostiako komisariara joan beharko da bila.


AMAIA JAIO

# Bihar egingo da Gureak-ekoen bazkaria

Auzokoak Urkizuko elkarte gastronomikoen elkarteak urtero Gureak lantegiko langileei eskaintzen dien bazkari berezia bihar egingo da Urkusu-Gain eta Erdi-Bana elkarteetan, 14.30ak aldera. 1981az geroztik Errege eguna pasatuta urtero egin ohi dute bazkaria Gureak lantegiko beharginek, Auzokoak elkartekoek gonbidatuta. Gaur egun 130 bat lagun daude Gureak lantegian beharrean eta horietatik gehienak batuko dira biharko bazkarian. Auzokoak elkarteak Bekuak, Denon Sahatsa, Dorrepe, Edozer, Erdi-Bana, Jaiki eta Urkusu Gain sozietate gastronomikoak hartzen ditu eta bertako bazkideak arduratzen dira bazkaria prestatzen. Bazkalostean, berriz, dantzaldia izaten da eta denei opariak banatzen dizkiete.


AMAIA JAIO

# Bakearen Astea La Sallen

Urteroko moduan, Gandhiren heriotzaren urtemuga gogoan, La Salle ikastetxean Bakearen Aldeko Astea ospatuko dute astelehenean hasi eta urtarrilaren 30era arte. Egun horietan bakearekin eta bestelako giza-baloreekin lotutako sentsibilizaziorako ekitaldiak garatuko dituzte Azitaingo eta Isasiko ikastetxeetan. Hala ere, ekitaldi nagusiak egun bitan ospatuko dituzte: Isasin hilaren 24an, 15.45etatik aurrera eta Azitainen hilaren 30ean, 11.30etatik aurrera.


SILBIA HERNANDEZ






# Sutea eta itzalaldia urtea hasteko

Urte berriko laugarren ordua bete zenean, Udaltzainek Urkizuko etxe batean zegoen su baten berri jaso zuten. Sua ustekabean hasi zen eta ez zegoen inor etxe barruan. Gauzak horrela, suhiltzaileak bertara joan behar izan ziren sua amatatzera. Suak etxea kiskalita laga zuen, eta goiko eta beheko etxeetan ere kalteak sortu zituen.

Hau gertatu eta hurrengo egunean, herriko erdialdeko hainbat kale hornikuntza elektriko barik geratu ziren: Eibarko Bizikleta Plazan dagoen transformadoretik kea irtetzen zelaeta, suhiltzaileak joan behar izan ziren bertara. Azkenean, arratsalde eta gau partera argia berreskuratu zen kale hauetan, baina hurrengo eguneko goizeko 11.00ak arte egon behar izan ziren lanean Iberdrolako langileak arazoa guztiz konpontzeko.


DANEL LEJARDI

**Eibarko Bizikleta Plaza azpiko transformadorean piztutako suak argi barik laga zuen herriko zati bat.**


LEIRE ITURBE



# Agur Guai-ri

Gabonetan primeran ibili dira umeak Armeria Eskolan Astixaren eskutik martxan egon den Guai parkean. Puzgarriak, tailerrak, ikuskizunak... egunero ondo pasatzeko hamaika aukera izan dute Guai-ra gerturatu diren umeek. Gabonak eta oporrak pasatuta, baina, datorren urtera arte agur esan diote umeek parkeari, datorren urtera arte.



# Lagun Taldearen emanaldi bikoitza

Lagun Taldeak, Adimen urritasuna dutenen aldeko elkarteak, ikuskizun bikoitza eskainiko du aurten Hezkuntza Esparruan, 'Hotel' izenburuarekin. Zapatu bitan izango dira ikuskizunak, hilaren 19an eta 26an, eta musika, dantzak eta bestelako aktuazioek osatuko dute ikuskizuna. Sarrerak aldez aurretik doan banatuko dituzte Lagun Taldea-ren lokalean (Argatxa, 13), astelehen, eguazten eta barixakuetan, 18.00etatik 19.00etara.

# Hamar teknikari kolonbiar Armeria Eskolan

Mekatronikan, Mekanikan eta Mantenimendu Elektronikoan teknikoak diren hamar kolonbiarrek hezkuntza plana hasi zuten aurreko astelehenean Armeria Eskolan, aurrerago euren herrialdean klaseak emateko helburuarekin. Horrela, teknikariek hiru hilabetez jardungo dute arlo horietan trebatzen.

Eusko Jaurlaritzak eta SENA Kolonbiako Enplegu Zerbitzuak hitzartutako akordio baten ondorioa da hezkuntza prozesu hau. Horrela, 60 teknikari etorri dira EAEra eta horien erdia Debabarrenean daude. Ikasketek irauten bitartean, Eibarko Hezkuntza Esparruan egongo dira ostatuz.

Armeria Eskolan formakuntza jasotzen dihardutenek 'Ekoizpen Automatikoen Sistemen mantenimendurako teknologia berrien' kurtsoa garatuko dute. Ikastaroak 400 orduko iraupena izango du eta eskolan ikasitakoa bailarako enpresetan 100 orduko egonaldiarekin osatuko dute.

# San Anton jaiak Azitainen datorren asteburuan

Patroia gogoan izango dute Azitainen datozen egunotan, San Anton jaietan. Eguena, urtarrilak 17 San Anton eguna da eta meza eta piskolabisarekin ekingo diote jai-egitarauari. Hurrengo egunean, barixakuan, 20.00etatik aurrera Untzaga jubilatu etxeko abesbatzak emanaldia eskainiko du. Hala ere, ekitaldi gehienak zapatu eta domekan pilatu dituzte. Hilaren 19an goizetik hasiko dituzte ospakizunak: 10.00etan Altzubarren frontoian pelota jaialdia egingo da eta ordu berean, baina Azitaingo gasolindegi parean, parkeko arkupeetan, San Anton Xake lehiaketa jokatuko da. Ordu erdi geroago mountain-bike martxa hasiko da. 11.30etan, V. Tiro Txapelketa (karabina neumatikoaz) jokatuko da parkeko arkupeetan eta parkean, berriz, umeentzako jolasak egingo dira eguerditik aurrera. Sariak 13.00etatik aurrera banatuko dituzte. Eta domekan 11.00etako mezarekin hasiko dute eguna. Eguerdian Kezka Dantza Taldearen emanaldia, umeentzako jolasak, musika, bertsolariak eta beste hainbat ekitaldirekin primeran pasatzeko aukerarik ez da faltako. 13.30etan joandako guztien artean 20 otar zozketatuko dituzte eta, jaia agurtzeko, bazkaria egingo dute Azitain jatetxean.

# eibar foball taldea



Zuzendaritzako berriak





Igoeraren ospakizunak



Eibar Primeran



Ulazia herriko arbitroa



Eibar B-ko eibartarrak



Alex Albistegi



Mandiolaren peña berria



Peñalvaren agurra



Del Olmo iaioa



Nesken taldea

## foballa



Eibartarrak-en igoera



Kiroltasunari saria



Urkiko neska gazteenak



2. Erregionaleko taldea

## areto-foballa



Jose Ramon Iriarte



Kenci taldea



Gipuzsalako bailarakoak



Relojes Mondaine

## foball-zaletua



Liga Azitainendako



Agiñaspi talde berria



Kopa Teknografikerako

ASKASIBAR
INTERSPORT-en
Beherapenetan gaude!!!



Calbeton, 15 - *Tel. 943 20 19 42 / Faxa 943 20 61 97* Calbeton, 12 - *Tel. 943 20 28 52*

# eskubaloia





Aristi Memoriala



Jubenilen taldea



Davor Cuturaren agurra



Malumbres



Egiako Torneoaren jabe



Kadeteen taldea



Yeray Bidasoara



Nesken taldea

# saskibaloia





Eibarko Torneoa



Gaizka entrenatzaile



Katu-Kale KA 1173



Novamark berria

KROS SPORTS
EKIPAMENDUAK
KIROL-MATERIALA
IGERIKETA
PSIKOMOTRIZITATEA
ALTERNATIBOAK
KROS SPORTS
EKIPAMENDUAK
KIROL-MATERIALA
IGERIKETA
PSIKOMOTRIZITATEA
ALTERNATIBOAK
KROS SPORTS
Julian Etxeberria, 2-4
(545 postakutxatila)
☎ 943 70 14 01
Faxa 943 70 23 35

# rugbia





Jubenilen taldea



Promozioan ezin igo



Iñaki Laskurainen buelta



Nesken taldea





# pelota





Astelena berriro zabalik





Pelotazaleari agur



Gabarri-Unamunzaga





Bengoetxeak 8 txapel



Etxaniz eta Egaña

# squash-a



Eibar Hiria Torneoa

J.A. LASKURAIN
ASEGURU ARTEKARIA D.G.S. 1.408 - J
Urtzaile 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 20 37 13 / 943 12 05 30
Faxa. 943 70 28 87 EIBAR
RAC
RACVN-ren ordezkaritza

# judoa


Kalamuakoak Parisen


Dominak Euskadikoan


Nekane Muguruza


Urki-Amaña taldea

# karatea


Alex Castillo


Jesus Castillo


Kiroldegiko taldea

# wu-shu


Ramon Quina



# boxeoa




Sanjuanetako jaialdia



AKONDIA
Albaitari Zentroa
Julen Arano / Mª Jesus Blanco
Bitto Sarasketa, 12
☎ 943 12 74 15

MUGICA iturgintza
- GASA ETA ITURGINTZA
- ALTZARI ETA OSAGARRIAK
- BAINUONTZIAK eta HIDROMASAJERAKO KABINAK
- HANSGROHE GRIFERIA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU ERRADIATZAILEA


teuco
hansgrohe
San Juan 15 - behea
Tfnoa. 943 201 030 / Faxa. 943 207 224

Iradi
LORADENDA
- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak
San Juan 1 ☎ 943 20 33 29 EIBAR

# igeriketa


Aitzol Arrilaga


Urbateko gazteenak


San Juan Torneoa


Jone Calvo


Maider Perales


Markel Alberdi


Ander Romarate

# waterpoloa


Urkotronik babeslea




Torneoa Mutrikun


Bigarren Ligan

KIROL MEDIKUNTZA
indartu
ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA
ERA GUZTIETAKO MUTUA ETA ASEGURUEKIN KONTZERTATUA

- ODOL ATERATZE ZENTRUA / EGUN BEREAN ERANTZUNA
- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKOEN MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOZIMENDU MEDIKOAK
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK
- LANEKO PATOLOGIAK ETA ERIZAINTZA

Diputazio Etorb. 8-10 ERMUA
Tel.: 943 17 21 12 - 943 17 21 16 indartu@euskalnet.net

# eskia



Carballo eta Telleria





Candanchu txapelketa



Euskadiko txapelketak

Zeharkaldia Laponian



# mendia





Deporreko mendi irteera

# eskalada






Munduko Kopa




Patxi eta Irati Anda





Garitano
1957an sortua
GOZOTEGIA
• ETXERA banatzen dugu
• Ezkontza eta despedidetarako TARTAK
Julian Etxeberria, 6
Tel. 943 20 24 51

CENTRO DE MASAJE JUANITO MASAJE ZENTROA
Kirol masajea eta terapeutikoa
Gimnasia aparatoekin
Zuzendutako gimnasia
Ego Gain, 11 ac. 943 20 83 80
20600 EIBAR (Gipuzkoa) 943 70 05 14

# txirrindularitza



Balenciaga Memoriala


Abascal Saria


Maria Gallastegi irabazle


Beñat Urain


Emakumeen Bira




Udaberri Saria


Nesken UCIko taldea


Igor Elizburu


Endika Zarrabeitia

Centro de fisioterapia
Manu Sánchez

KIROL FISIOTERAPIAN ADITUAK

- *Fisioterapia*
- *Osteopatia*
- *Kirol-masajea eta terapeutikoa*
- *Errehabilitazioa*
- *Kirol lesioen tratamendua*
- *Elektroterapia*

**Txaltxa Zelaiko parkingetik 50 metrora, herriaren erdi-erdian**

Juan Gisasola, 14 • Tel.: 943 127 078 • EIBAR (Gipuzkoa)




# Eibarko XIII. KIROL SARIAK

## 2007-XII-31



SARI BEREZIA:
Pedro Agirregomezkorta.



SARI BEREZIA:
Patxi Usobiaga.



SARI BEREZIA:
Ramon Quina.



ARETO-FOBALLA:
Enrique Rodríguez.



ARKU TIRAKETA:
Alberto Zubiaurre.



ATLETISMOA:
Ane Zabala.



AUTOMOBILISMOA:
Aitor Arakistain.



ESKIA:
Leire Garate.



ESKUBALOIA:
Viktor Debre.



FOBALLA:
Javier Mandiola.



GIMNASIA ERRITMIKOA:
Tania Nagornaia.

# 2007/2008
## denboraldiko
# EIBAR FUTBOL TALDEA



**2. A Mailako taldea**



**Jubeniletako Nazional Mailako Urko**



**Jubeniletako Euskal Ligakoa**



**Emakumezkoen Kadete Mailakoa**



**Infantiletako Ohorezko Mailakoa**

**1. Nazional Mailako taldea**






**eibartarron laguntasuna taldearen etorkizuna**



**3. Mailako taldea**



**Kadeteetako Euskal Ligakoa**



**Kadeteetako Ohorezko Mailakoa**



**Infantil Txikiko Teknifikazio taldea**



**Alebinetako taldea**



HERRI KIROLAK:
Victorio Zelaia.



HIRU TXIRLO:
Jose Manuel Pérez.



IGERIKETA:
Markel Alberdi.



JUDOA:
Unai Soraluze.



PAINT-BALL:
David Román.



PELOTA:
Jon Zubizarreta.



RUGBIA:
Peru Unamuno.



SASKIBALOIA:
Jose Angel Díaz.



SQUASH:
Enrike López.



TIRO OLINPIKOA:
Jon Joseba Bergaretxe.



TRIATLOIA:
Ane Ziaran.



TXIRRINDULARITZA:
Amets Txurruka.



WATERPOLOA:
Anartz Mitxelena.



WU-SHU:
Eneko Baz.



XAKEA:
Edu Olabe.



EUSKERA SARIA:
Escudería Eibar.

# Euskal Bizikleta



Arrateko Igoera


Erasoren Aurkezpena


Azken podiuma

# duatloia-triatloia


Eibarko Duatloia


Ane Ziaran




Josu Unanue



Arrigorriagako podiuma


Saria eibartarrentzat

ENEKO MAILAGARAI
901 Elkarg. Zkia.

FISIOTERAPIA

– Osteopatia
– Fisioterapia Neurologikoa
– Arnas-Fisioterapia
– Errehabilitazioa
– Kinesioterapia
– Spray and Stretch
– Masajeak

TRATAMENDUEN
JARRAIPEN
PERTSONALIZATUAK

San Agustin, 2-4
20600 EIBAR
Tel. 622 145 858

# atletismoa


Asier Cuevas



Arkaitz Zabala


Pedro Agirregomezkorta


Simon Aldazabal saria


Maratoia Argentinan


Jon Elkoroiribe


Unai Narbaiza



Bolunburu Memoriala


Amaña-Urko-Amaña

LEJARDI aseguruak

Telefonoa. 943 20 11 49 Plaza Barria 8 20600 EIBAR

# herri-kirolak




San Isidroak


Victorio Zelaia




Euskal Jaialdia


Agarre-Azpiko idiak


Hodei Ezpeleta

# hiru-txirlo


Asola-Berriko ordezkaria


Casa Cantabriakoa

# bolo-palma



Olabarria AUTOBUSAK

BERTOKO ETA NAZIOARTEKO TXANGOAK

Besaide 11. ELORRIO
Tel. 607 - 41 06 21 (Eibar) / 94 - 623 16 47 (bulegokoa) / Faxa. 94 - 623 16 47

## tiroa


Field Target Arraten


Josu Ereña


Karabinarekin Untzagan

## ehiza


Muestrako txakurrak


San Andres Torneoa

## arkua


San Juan Torneoa



## paint-ball


Paint-ball lehiaketa




Sariak jasotzen

Gasoleo banaketa
Baita kalefakzio eta ur berogailuentzat ere
estación de servicio kantoi eibar
GASOLINDEGIA
Barrenengua 3
Tel. 943 20 73 74 / 943 20 71 30

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

# gimnasia erritmikoa


Ipuruako ordezkariak


Junior mailako taldea


Garazi Pablogorran


Olatz Ibaibarriaga


Ziortza Goiria


Errusiarrak Eibarren


Espainiako txapelketan


1. mailako taldea

# automobilismoa


Aitor Arakistain


Iñigo Olabe


Escuderia Eibar


Liebana eta Araloitia


Josemi Gabilondo




EXKABAZIOAK
BERGARETXE S.L.
leherketak, eraispenak, exkabazioak eta garraioak
Arragueta 2 - Bis B, behea B
Telefonoa eta faxa: 943 70 19 54

## xakea





Xake txapelketa Eibarren



Haritz Garro



Arroitajauregi irabazle

## bela



Asier Kintana

# Azken berriak

### EIBAR-SPORTING PARTIDURAKO SARRERAK

`Klubari laguntzeko egun erdia' izendatu dute datorren astean jokatuko den Eibar-Sporting partidua. Hori dela-eta, bazkideek bulegoan jaso behar dituzte sarrerak, prezio berezian (haurrek 5 eurotan eta beste guztiek 10 eurotan), astelehenetik barixakura, 17.00-etatik 20.00ak arte. Bestalde, Ertzantzak 'arrisku handikotzat' jo du partidua eta aldaketak egongo dira: Mendabaldeko Gol Tribunako eta Mendabaldeko Beheko Gol Tribunako (mojena) bazkideak Erdi, Ipar eta Ekialdeko tribunetan jarri beharko dira, segurtasun neurriengatik. Eurek aukeratu dezakete jarlekua, sarrerak jasotzerako orduan.

### ZIKLOTURISTA LIZENTZIAK

Urte honetarako zikloturista lizentziak berritzen dihardu Eibarko Txirrindularitza Elkarteak. Interesa dutenek elkartearen egoitza berrira joan beharko dute (Pagaegi, 3) eguaztenetan, 19.00ak eta 20.00ak bitartean. Otsailera arte egongo da lizentziak berritzeko aukera eta, horretarako, 2007koa eraman beharko da. Lizentzia berria ateratzeko, berrik, eskaera-orria beteta eta argazkia eman beharko dituzte. Kasu bietan 80 euro ordaindu behar dira, Gipuzkoako Federazioaren kontuan (Kutxako 2101 0116 58 0010309359 zenbakian). Lizentzia berritu edo egiteko frogagiria aurkeztu beharko dute interesatuek.

### PELOTAKO EUSKAL LIGA

Asteburuan hasiko da Euskadi mailako Pelotako Euskal Liga. Esku-pelota modalitatean, txapelketa kadete, jubenil, 22 urte azpiko eta senior mailetan jokatuko da, banaka zein bikoteka. Eibarko Klub Deportiboak bikoteka hartu du parte, 22 urte azpikoen mailan, Igor Egaña eta Jon Zubizarreta pelotariekin eta eskuz banakakoan, berriz, Jon Bengoetxea Gipuzkoako txapeldunarekin; ordezkoak Iker Agirrebeña eta Arkaitz Karmona izan dira. Maila bereko Labaka eta Egaña bihar Amezketara joango dira txapelketan debuta egitera, 17.30-etatik aurrera hango bikotearen aurkako neurketan. Bengoetxeak Irurutzunen jokatuko du asteburuan. Nafarrei gailentzea zaila izanda ere, Bengoetxea sasoi onean dago eta sorpresa egon daiteke.

### ESKI IRTEERA DEPORREKIN

Urtarrilaren 19-20ko asteburarako eski irteera antolatu du Klub Deportiboak. Nagusientzat irteera izango da eta 06.00etan abiatuko dira: mendiko eskia egiten dutenek Astunerako bidea hartuko dute eta fondokoek, berriz, Somporterakoa. Kasu bietan Canfranc estazioko Villa Anayet hotelean hartuko dute ostatu. Irteeraren prezioa 60 eurokoa da eta joan nahi duenak Deportiboan eman beharko du izena, martitzen eta eguenetan, 19.30etatik 20.30etara.

### GARRO, XAKEAN AZPITXAPELDUN

Haritz Garro Gipuzkoako Jubenilen Xake Txapelketan azpitxapeldun geratu zen. Txapelketa guztian zehar sailkapenaren buruan joanda ere, Garrok ezin izan zuen txapela Eibarrera ekarri eta azken partidan Jokin Fernandezekin berdinketa lortu eta gero, bigarren postuan sailkatu zen. Edu Olabek Zarauzko Bingen Urbieta gainditu zuen 3. mahaian eta txapelketako 4. postuan sailkatu zen; Diego Olmok, berriz, Erik Juez txapeldunarekin galdu zuen azken txandan eta 5. postuan sailkatzea lortu zuen. Deporreko xakelariek bihar dute hurrengo zita, Gipuzkoako Taldekako Txapelketan.

### RUGBI TXAPELKETA BUELTAN

Asteburuan bueltatuko da rugbi txapelketa, senior taldeak bihar 16.00etatik aurrera Baztanen jokatuko duen neurketarekin. Ia hilabeteko etenaldia izan bada ere, Daniren eta Laskurainen mutilak gogor egon dira entrenatzen hilabete honetan, txapelketaren bigarren zatiari aurre egiteko prestatzen. Baztanek ez du partidu bakarra galdu etxean eta partidua gogorra izan daitekeela uste dute eibartarrek, baina estatistikak hausteko asmoarekin doaz eibartarrak. Bigarren taldeak domekan ekingo dio txapelketari Gernikan. Eta kadeteek bigarren itzuliko lehen partidua Unben jokatuko dute, zapatuan 11.00etatik aurrera, Gaztedi taldearen aurka.

# E-kultura berria aurkeztu dute

Urte berriarekin batera, Eibarren kultura arloan hilero antolatutakoen nondik norakoak jakiteko formula berria aurkeztu zuen Udaleko Kultura-Euskara batzordeak aurreko astean. Mari Jose Telleria Kultura zinegotziak kultur-gida berriaren edukien eta itxuraren berri eman zuen prentsaurrekoan. Erabilgarritasuna helburu, liburuxka itxura dauka E-Kulturaren 64. zenbakiak eta formato berari eutsiko dio aurrerantzean. 24 orrialdetan herrian garatuko diren ekitaldien berri emateaz gain, testu osagarriak gehitu dizkiote hilabetekariari. Hizkuntzari begiratuta, Telleriaren berbetan, *"irakurlegoa kontutan hartu nahi izan dugu eta euskera eta gazteleraren artean oreka bilatzen ahalegindu gara".*


EKHI BELAR

**Mª Jose Telleria, Euskara eta Kultura zinegotzia, gida berriaren aurkezpenean.**

E-kultura hiriko egunkarien salmenta tokietan, eskoletan eta beste puntu konkretu batzuetan eskuratu daiteke (kiroldegian, Errota gaztelekuan, Kulturalean…). Horrez gain, gida etxean jaso nahi izanez gero, 010 telefonora deitu behar da.

# Operari buruzko hitzaldia Portalean

Martitzenetan Berbetan programaren barruan, operari buruzko hitzaldia antolatu dute Aula Cultural DV-k eta Udalak, Ikasten-eko parte den DEOL (Deba Eskualdeko Opera Lagunak) elkartearen laguntzarekin. Hitzaldia hilaren 15ean izango da Portalean, 19.00etatik aurrera. Jose Antonio Etxenike Donostiako Musika Hamabostaldiko zuzendariak eta Mari Jose Cano musika-kritikoak hiru opera izango dituzte hizpide: Mozarten 'Las bodas de Fígaro', Rossiniren 'El barbero de Sevilla' eta Bizeten 'Carmen'.



# Play-backean izena emateko epea zabalik


AMAIA JAIO

Aurten Eguen Zuri eguna urtarrilaren 31an izango da eta, beraz, Aratosteak beste batzuetan baino lehenago ospatuko ditugu. Programazioaren barruan, …eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta, play-backa egongo da Untzagan otsailaren 2an, 17.00etatik aurrera. Play-backean parte hartu nahi dutenek aldez aurretik eman beharko dute izena euren ikastetxean urtarrilaren 28a baino lehen. Gehienez 6 lagunek osatutako taldeek har dezakete parte eta, jakina, kokoz jantzita joan beharko dira. Eibarko ikastetxeren batean ikasten diharduten Lehen Hezkuntzako 5. edo 6. mailako ikasleek eman dezakete izena eta hainbat sari banatuko zaizkie onenei. Hala ere, parte hartzaile guztiek jasoko dute opariren bat.

# Laburrak

**PEIO RUBIO `ILLUNABARRIAN´**

*Urtarrilaren 23an Peio Rubio nekazaria izango da ..eta kitto!-ren lokalean 'Ilunabarrian' programaren barruan. Rubio ekonekazaritzaz arituko da, gai honen nondik norakoak azalduz eta bertara hurbilduko direnen zalantzak argituz.*

**KARTA-JOKO TXAPELKETA**

*Kantabriako Etxeak karta-joko eta domino txapelketa antolatu du urtarrileko zapatuetarako. Bihar tutearen txanda izango da, hilaren 19an 'flor' delakora jokatuko dute eta hilaren 26an, berriz, domino txapelketa egongo da. Txapelketa guztiak 16.30etatik aurrera hasiko dira Jardiñeta kaleko Centro Montañés-ean.*

**ZERAMIKA IKASTAROA**

*Eskultura zeramika ikastaroa emango da Portalean otsailean, 5etik 28ra, martitzen eta eguenetan. Talde bi egingo dira, 17.00etatik 19.00etara eta 19.00etatik 21.00etara. Matrikulak 35 euro balio du eta 16 urtetik gorako edonork eman dezake izena (Eibarren erroldatutakoek lehentasuna izango dute). Izena ematek Pegorara jo behar da urtarrilaren 14tik 25era.*

**LOTERIA ETA ZOZKETA**

*Eusko Alkartasunaren Gabonetako loterian jokatutakoa bueltan hartzea tokatu da (2'40 euro). Partizipazioak kobratzeko Julian Etxeberria kaleko loteria administraziora jo behar da, martxoaren 22a baino lehen. Bestalde, Urki foball taldeak gabonetako loteriarekin batera saldutako zenbakiekin egindako zozketan hauek izan dira saritutakoak: 1.727 (Evia arrantzarako ekipoa), 1.422 (Eroski City-ren lotea) eta 0005 (Andia harategiko urdaiazpikoa).*

KATU KALE
TABERNA
BIDEBARRIETA, 1

SANTA MARINA
ASISTENCIA DOMICILIARIA
Nagusien eta umeen zainketa
Egigurentarren, 12 - behea (EIBAR) 943-530699



Begiak zabal-zabalik, burua beti arin. Zerua bezain handia zen estudio txiki batetik, tentuz, gozo eta poliki, inolako presarik gabe, errealitate gordina artelan bihurtu eta leihoak zabaltzen zizkion behin eta berrio irudimenari. Horrela gogoratzen dut Tio Fernando. Horrela nahi dut gogoan izan.

Nahiko nuke nik orain, berak koloreak laztantzen zituen moduan, hitzak zaintzea. Nahiko nuke nik orain, berak forma eta hutsuneari erreparatzen zion bezala, esaldiari esanahia ematea. Nahiko nuke nik orain, hau idazterakoan, lerro hauetan zuei eskaintzea berak oihal bakoitzean jartzen zuen arreta. Baina hori guztia denborak ematen du. Urte askoan egindako lan tinko eta jarraiaren emaitza izan da.

Gauza gehienak arrapaladan, kontu barik eta txarto egiten diren garai honetan, etxeko sofaren aurrea altare bihurtu dugunean eta edozein sasi-jainkok esandakoa entzun gabe onartzen dugunean zailagoa da bera bezalako pertsona baten galera onartzea. Horren zaila egiten zait heriotzaren kontu hori onartzea, nahiago dudala pentsatzea gauez, ilargia lagun, zentauro baten gainean ihes egin duela. Edo bere ametsetako txoriek eraman dutela, bahituta edo, planeta urdin batera soinulariek musika alaia jotzen duten bitartean.

JORGE BEORLEGI



LEIRE ITURBE

**Errepideko segurtasunari buruzko marrazkirik onenak aukeratu zituzten lehiaketan. Argazkian, aurtengo irabazleak Iñaki Arriola alkatea eta Markel Susaeta foballariarekin.**

# Bide Heziketaren sariak banatuta

Urtarrilaren 3an Udaltzaingoak antolatutako 2008ko Bide Heziketako marrazki lehiaketako sariak banatu ziren Armeria Eskolan. Ekitaldian Markel Susaeta Athletic Klubeko jokalaria eta Iñaki Arriola alkatea izan ziren. Aurtengo edizioko irabazleak hauek izan dira: Marta Rodriguez, Leire Cartagena, Ane Rodriguez, Ainhoa Mendoza, Elena Aperribai, Iñaki Fernandez, Lucia del Moral, Leire Bergara, Ane Izquierdo, Jon Estanislao, Ayoub Samadi, Javier Egaña, Julen Ramon, Julen Etxaniz, Miriam Petite, Nerea Mugika, Julen Saiz, Maitane Vicente, Carla Gibaja, Sandra Barrio, Naiara Chimeno, Sergio Morenza, Narada Azpiri eta Maider Sangroniz.

# Euskal ikasleen arteko blog lehiaketa



**Euskaraz aurkeztu behar dira lanak www.ikasi.eu web orrian.**

Urtarrilaren 14an euskal ikasleen arteko blog lehiaketa hasiko da Alianzo enpresak, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta. Parte hartzaileek hilabete biko epea izango dute euren lanak egiteko, hauek, beti ere, euskaraz. Gainera, lanak taldeka egin beharko dira, beti irakasle eta tutore baten ardurapean.

Epai-mahaiak egokitasuna eta orijinaltasuna baloratuko dituzte. Informazio gehiago lortu nahi izanez gero, www.ikasi.eu web orria bisitatu edo antolakuntzarekin harremanetan jarri ikasi@ikasi.eu helbidean.

# Patxi Txikiren erakusketa Debegesan

Patxi Txiki artista donostiarrak erakusketa ipini du Debegesan eta bere lanak urtarrilaren 31ra arte ikusteko aukera izango da. Tradizioz margolaria bada ere, azken urteetan eskultura-munduan dabil lanean buru-belarri eta lan horren fruituak daude ikusgai erakusketa honetan. Haizeak mugimenduan jar ditzakeen espiral modukoek osatzen dute erakusketa. Astelehenetik barixakura ikus daitezke lanak, goizeko 08.00etatik arratsaldeko 18.30etara.






## Belategiren kartela Aratosteak iragartzeko

Maria Isabel Belategi 'Gauza batzuk… ezin dira eskutatu' lanarekin izan da 'Aratosteak 2008' kartel lehiaketaren irabazlea. Iratxe Unanue, Leire Kareaga eta Asier Lopez de Viñasprek osatu zuten epai-mahaia, eta aho batez erabaki zuten saria berari ematea. Nagusien mailan, bestetik, Ernesto Etxabek akzesita eskuratu du 'Eta ni orraztu gabe' izeneko kartelarekin. Umeen mailan, 11 eta 14 urte bitartekoen lehen saria Irati de los Toyosek lortu zuen, eta 10 urte artekoen lehen postua Maider Alcobak lortu zuen.

## Field Target Armeria Eskolan

Armeria Eskolako frontoiak Field Target saio bat jasoko du domekan. Field Target hau diana metaliko toleskorren aurkako tiro modalitatea da. Ekintza 10.00etatik 14.00etara egingo da, eta Armeria Eskolako Ikasle Ohiek eta Euskadiko Field Target Elkarteak antolatu dute. Armeria Eskolako Ikasle Ohien elkartearen helburua armagintza industriaren munduko ekintzak sustatzea da, "Eibarko historia delako", antolatzaileen esanetan.



## Urtea ondo hasteko, Urkora!

Eguraldia lagun, eibartar ugarik hasi zuten urtea Urko puntara igota, ohiturari jarraituta. Eibarko Klub Deportiboak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak, betiko moduan, mendizaleei hamarretakoa eskaini zien Ixua jatetxean. Denera 100 litro salda eta 20 kilo txorizo banatu zituzten.

## Asier Garinen argazkiak

Egiptoko irudiek osatutako argazki erakusketa dago ikusgai Klub Deportiboan. Urtarrilaren 31ra arte, Asier Garin argazkilariaren lanak Depor tabernan ikus daitezke, taberna zabalik dagoen guztietan.





## telefono jakingarriak

SOS deiak........................... 112
Pegora ................................ 010
Udaletxea ............ 943 70 84 00
Portalea ............... 943 70 84 39
Udaltzaingoa ....... 943 20 15 25
Mankomunitatea.... 943 70 07 99
Debegesa ............ 943 82 01 10
KIUB .................... 943 20 38 43
Epaitegia ............. 943 03 34 00
Iberdrola.............. 901 20 20 20
Naturgas.............. 902 12 34 56
DYA Larrialdiak... 943 46 46 22
Gurutze Gorria.... 943 22 22 22
Mendaro osp....... 943 03 28 00
Anbulategia......... 943 03 25 00
Torrekua .............. 943 03 26 50
Errepideak........... 902 11 20 88
Ertzaintza ............ 943 53 17 00
Eusko Tren.......... 902 54 32 10
Pesa..................... 902 10 12 10
Taxiak .................. 943 20 30 71
............................. 943 20 13 25
Alkoholiko Anonimoak...... 629 14 18 74

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18,30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduro. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **EIBAR-GASTEIZ.** Egunero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaiegunak: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egunero: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.30 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaiegunak: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.15. Domeka eta jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.45. Domeka eta jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaiegunak: 12.30 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 06.50-etik 21.50-era orduro. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etera orduerdiro. Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 07.55-etik 21.55-era orduro.

## tren ordutegiak

**EIBAR-BILBO.** Lanegunak: 06.13etatik 21.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 05.57etatik 20.57etara orduro. + 09.34 eta 20.18. **EIBAR-DURANGO.** Egunero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 06.13etatik 20.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Lanegunak: 05.47etatik 20,47etara orduro.

## eguraldia

*Euskal Meteorologia Agentziatik*

**HOBERA**

**Zapatuan** eguraldiak hobera egingo du, baina goizalderako euri apur bat espero da. Arratsaldean, ateri. Haizea aldatzen joango da, hego-mendebaldekoa izan arte. Elur-maila 1.000 metrora kokatuko da. **Tenperatura** pixka bat jaitsiko da, baina **domekan gora** egingo du.

# 12 zapatua

### BAZKARIA

**14.00.-** Gureak tailerrekoen bazkaria, Auzokoak elkartearen eskutik. Urkusu Gain eta Erdi Bana elkarteetan (Urkizun).



# 13 domeka

### FIELD TARGET

**10.00/14.00.-** Field Target, aire-karabinarekin tiraketa. Antolatzailea: Field Target Euskadi Afte. Armeria Eskolan.



### MARRAZKI LEHIAKETA

**16.30.-** 'Gabonetako XIII. Marrazki Lehiaketa' (6-12 urte bitarteko umeentzat), Galiziako Etxeak antolatuta. Merienda denentzat. As Burgas Galiziako Etxean.

### UMEENDAKO ZINEA

**17.00.-** 'Encantada. La historia de Giselle' (Zuz: Kevin Lima). Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

# 15 martitzena

### IKASTEN

**10.00/12.00.-** 'Revalorización de la sexualidad'. Hizlaria: Ana Oyarzun (sexologoa). Antolatzailea: Ikasten. Hezkuntza Esparruan.



### MARTITZENETAN BERBETAN

**19.00.-** 'Tres óperas, tres autores'. Hizlariak: Jose Antonio Etxenike eta Maria José Cano. Antolatzailea: Aula de Cultura DV. Portalean.

### EIBAR ZINE-KLUBA

**21.00.-** 'La fuente de la vida' (Zuz: Darren Aronofsky). Sarrera: 3'50 euro. Coliseoan.

## erakusketak

<u>Urtarrilaren 20ra arte</u>

**Agurtzane Soraluze**ren tallak. ***Topalekuan.***

<u>Urtarrilaren 31ra arte</u>

**Asier Garin**en `Egipto´ argazki erakusketa. ***Klub Deportiboan.***

**Jose Luis Martinez**en argazki erakusketa. ***El Ambigú tabernan.***

**Gotzone Merino**ren argazki erakusketa. ***Portaleko tabernan.***

<u>Otsailaren 3ra arte</u>

**Fernando de Vicente**ren `Bartleby´ erakusketa. ***Portalean.***

# 17 eguena

### GURASOENDAKO HITZALDIA

**18.30.-** 'Habilidades para la vida'. Hizlaria: Hilario Garrudo (psikologoa). 12-16 urte bitarteko umeen gurasoentzat. Portalean.

### HITZALDIA

**19.00.-** 'La industria, fábrica del paisaje'. Hizlaria: Iñaki Uriarte Palacios (arkitektua). Portalean.

### SAN ANTON EGUNA

**19.00.-** Meza Azitaingo parrokian eta, ondoren, piskolabisa.



## lehiaketak

**'Aratosteak 2008 Eibarren' kartel lehiaketa.**
***Urtarrilaren 12ra arte.***
Non: Portalean.
Informazioa: Portalean edo Pegoran.

**Aiton-amon eta biloben arteko ipuin lehiaketa.**
***Urtarrilaren 15era arte.***
Informazioa eta lanak entregatzeko: 943820110 Debegesa (Itziar Elustondo).

**'Antzez-artikulu eta gidoientzako XXIII: Narruzko Zezen Sariak'.**
***Urtarrilaren 18ra arte.***
Non: Egoitza Zentroan (Hezkuntza Esparruan).
Informazioa: 943208444 (11.00-13.00 eta 16.00-18.00).

# denborapasa

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Y | J | Y | R | L | E | M | D | Z | H | E | S | L | L | I |
| P | J | N | C | F | N | P | W | W | W | C | B | Y | A | R |
| V | L | A | R | I | T | Z | A | T | X | U | R | I | I | R |
| A | C | E | E | H | O | R | I | Z | R | G | S | J | D | O |
| G | O | D | N | O | T | S | A | O | T | U | W | T | A | G |
| R | Z | A | L | T | E | A | I | G | N | R | B | O | T | I |
| B | G | N | H | Q | Z | P | R | T | A | D | A | B | X | R |
| L | A | I | D | A | S | I | Z | E | H | E | A | D | U | R |
| B | J | M | E | A | O | A | A | P | N | W | R | W | N | A |
| A | Q | K | R | I | R | Z | L | Z | Q | A | E | E | O | O |
| Y | F | R | K | J | G | I | K | Q | B | W | V | V | F | H |
| B | A | A | R | N | H | L | N | A | G | W | U | L | Q | I |
| K | B | B | E | X | Q | R | B | R | B | O | L | A | G | M |
| Y | O | H | L | B | M | O | F | Z | X | W | M | G | Z | W |
| K | U | O | P | B | Q | G | V | W | E | T | Q | A | F | C |

Topatu hizki zopa honetan Bizkaiko 14 hondartza.

Aurreko astekoaren SOLUZIOA (Gipuzkoako 15 mendi)



# zinemazinema




## untzaga

### "Alien vs Predator 2"

ZUZENDARIA:
***Colin eta Greg Strause***
AKTOREAK:
***Steven Pasquale, Johnny Lewis, Reiko Aylesworth, John Ortiz..***

AEBko herri batera jausiko den espazio untziaren barruan Alien mordoa dago. Predator guztiak hil dituzte, bat izan ezik. Alienak eta Predatorrak burrukan hasiko dira, eta oraingoan ere, erdian, Coloradoko herri txiki bateko biztanleak…



## amaña

### "Encantada. La historia de Giselle"

ZUZENDARIA:
***Kevin Lima***
AKTOREAK:
***Amy Adams, Patrick Dempsey, James Marsden, Timothy...***

Giselle printzesa ederra bere mundu magikotik bota du Narissa erreginak. Manhattan-en agertuko da eta orain arte bizi izan duena aldatzeko aukera izango du. Gainera, maitemindu egingo da Giselle printzesa…



## coliseo

### "La fuente de la vida"

ZUZENDARIA:
***Darren Aronofsky***
AKTOREAK:
***Hugh Jackman, Ellen Burstyn, Rachel Weisz, Mark Margolis..***

Denboran saltoka ibiliko da gizon bat, XVI. mendeko Espainian hasi eta XXVI. mendeko etorkizuna artean. Bere helburu bakarra maite duen emakumea salbatzea izango da denbora guzti horretan…

## farmaziak

***11, barixakua***
GOIZEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

***12, zapatua***
GOIZEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

***13, domeka***
GOIZEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

***14, astelehena***
GOIZEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

***15, martitzena***
GOIZEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

***16, eguaztena***
GOIZEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

***17, eguena***
GOIZEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ ***Ibarrondo*** *(Zeharkalea, 2)*

***18, barixakua***
GOIZEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ ***Aranburu*** *(Gipuzkoa etor., 46)*

## hildakoak

- **Jose Telleria Mintegi.** 67 urte. 2007-XII-28.
- **Jose Fernando Ayala Okariz.** 58 urte. 2007-XII-29.
- **Antonia Lamarain Astigarraga.** 88 urte. 2007-XII-29.
- **Faustino Barrasa Fernández.** 86 urte. 2007-XII-30.
- **Jose Mª Jiménez Roldán.** 69 urte. 2007-XII-31.
- **Txomin Garate Sánchez.** 72 urte. 2007-XII-31.
- **Jose Luis Lluvia Lizaso.** 77 urte. 2007-XII-31.
- **Elvira Lizarralde Unzetabarrenetxea.** 91 urte. 2008-I-1.
- **Angel Txintxurreta Oregi.** 60 urte. 2008-I-2.
- **Josefa Guzmán Gómez.** 75 urte. 2008-I-2.
- **Basilio Lores Gabaldón.** 87 urte. 2008-I-2.
- **Pedro Escribano Medrano.** 79 urte. 2008-I-3.
- **Joaquina Pareja Ponce.** 82 urte. 2008-I-3.
- **Jose Salvador García.** 86 urte. 2008-I-5.
- **Fernando Beorlegi Begiristain.** 79 urte. 2008-I-6.
- **Dorotea López Miguel.** 88 urte. 2008-I-7.
- **Mª Carmen Elejalde Iraolagoitia.** 75 urte. 2008-I-7.

## jaiotakoak

- **Martxel Oruezabal Ortíz de Guinea.** 2007-XII-13.
- **Paul Aranzeta Aramaio.** 2007-XII-19.
- **Naroa García Gavilán.** 2007-XII-20.
- **Julen Uranga Zelaia.** 2007-XII-23.
- **Paula Tardío García.** 2007-XII-25.
- **Liher Fernández Magalhaes.** 2007-XII-28.
- **Iñigo Peña Gonzalo.** 2008-I-1.
- **Mikel López Alvarez.** 2008-I-3.
- **Ekhi Cobos Fernández.** 2008-I-3.
- **Maider Omaña Ruiz.** 2008-I-4.

# merkekitto

## ETXEBIZITZAK

● Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela-jangela, sukaldea eta komun bi. Aparta. Hego orientazioa eta dena kanpora. Igogailua. Tel. 645-722957.

● Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 666-798785.

● Eibarko erdialdean pisua hartuko nuke alokairuan. Erreferentziak baditut. Tel. 690-980846.

● Elgoibarko erdialdean pisua alokagai. 2 logela. Nahiko berria eta jantzita. Igogailua eta garajea. Tel. 943-203083.

● Elgoibarko erdigunean bikote batentzako pisua alokagai. 2 logela. Berriztuta. Ederra. Tel. 605-766911.

● Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 649-199638.

● Zaldibarren 62 $m^2$ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela (leihoarekin), balkoia, despentsa eta trasteleku konpartitua. Altzariekin. Ezinhobea eta eguzkitsua. 189.000 euro. Tel. 615-746231.

● Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Ahal bada hutsik. Tel. 652-766131.

● Soraluzen edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 619-812347. Karmen.

● Bikoteak pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 600-202516 edo 943-201933.

● Ibarkurutze 3an pisua salgai (4. solairua). 79 $m^2$. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia eta trasteroa. Guztiz jantzita. 203.000 euro. Tel. 685-757948.

● Soraluze erdialdean apartamentua salgai. 42 $m^2$. Berriztuta. Prezio interesgarria. Tel. 696-502201.

● Pertsona behar da alokairuan hartutako pisua konpartitzeko. Tel. 661-569495.

*Iragarkiak ipintzeko:*
***943-200918 (Marisol).***

## SALEROSKETAK

● Telebista salgai. 25 pulgada. Altzariarekin. Prezio onean. Tel. 943-120308.

● Bizikleta estatikoa salgai. Konputagailu multifuntzionalarekin. Romester markakoa. Magnetic-Ride MR 885. 80 euro. Tel. 615-727990.

● Ordenagailu zaharra kentzeko baduzu, gustora hartuko nuke. Tel. 688-661415.

## AUTOAK

● Hyundai Lantra salgai. Merke. Tel. 943-204102.

## LOKALAK

● 120 $m^2$ko lokala alokagai. Elkarte batendako edo bilerak egiteko aproposa. 18 urtetik gorakoendako. Tel. 649-983581.

● Konponketa denda traspasoan atendidu ezin delako. Tel. 667-892677 edo 688-635013.

● Ipurua auzoan taberna alokagai. Tel. 605-769571.

● Eibarren garajea hartuko nuke alokairuan. Tel. 620-160303.

*Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajeak:** alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. **Autoak:** 10 euro. **Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.***

## LANA

● Kamarera/o behar da Maixa tabernan. Tel. 610-619421.

● Neska euskalduna behar da astero arratsalde bitan umea zaintzeko. Tel. 635-706717.

● Neska eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 943-200980.

● Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 679-578511.

● Neska eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-409732.

● Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 660-919423.

● Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 646-811678.

● Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Esperientzia. Tel. 618-935929.

● Neska eskaintzen da astelehenetan goizez garbiketa lanak egiteko. Baita zapatu eta domeketan tabernan. Tel. 663-409732.

● Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Arratsaldez edo gauez. Tel. 699-576107.

● Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 690-296857.

● Emakumea behar da pertsona nagusiarekin egoteko (ordu batzuetarako). Tel. 696-252210.

● Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 616-230814.

● Kamarera/o behar da Sokoa tabernan asteburuetarako. Tel. 943-207100.

● Pertsona euskalduna behar da astean hiru egunez (16.30etatik 18.30etara) umeak zaintzeko. Tel. 646-668659.

● Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 669-064252.

● Emakumea eskaintzen da arratsaldez umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 636-841158 edo 943-700461.

● Emakumea eskaintzen da tabernetan sukaldari edo garbitzaile lanak egiteko. Tel. 676-853028.

● Kamarera eskaintzen da jantokian edo barran lan egiteko. Jornada osorako. esperientzia. Tel. 663-301585.

● Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 663-301585.

● Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 638-420860.

● Gizon arduratsua eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Tel. 622-625812.

● Emakume arduratsua eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 608-005816.

● Tarota irakurtzen da. 15 euro. Tel. 608-005812.

● Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 646-821678.

● Deportiboko pelota eskolarako laguntzaileak behar dira. Tel. 661-700433.

● Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo etxeko lanetarako. Tel. 678-939382.

● Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan umeak zaintzeko. Tel. 696-705238.

● Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta kamarera lanetarako. Tel. 697-869958.

● Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 690-906085. Cristina.

● Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 645-359279. Sandra.

● Emakume euskalduna behar da etxeko lanetarako. Tel. 647-730930.

● Pertsona euskalduna behar da ume bi zaindu eta ikastolara eramateko (goizez, 07.30etatik 09.30etara). Tel. 657-799511. Edurne.

● Emakumea eskaintzen da gauez nagusiak zaintzeko. Tel. 630-531469.

● Sukaldaria behar da zapatu, domeka eta astelehenetan lan egiteko. Tel. 943-121657.

# ...eta musu bat zuretako

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, ITXASO eta GORANE, gaur bi urtetxo egingo dittuzuelako. Muxu bat famelixaren partez.



Zorionak, JON, hillaren 7xan urte bi bete zenittualako. Muxutxo mordo bat famelixa guztiaren eta, bereziki, aitatxo eta amatxoren partez.



Zorionak, IRAIA, printzesa, hillaren 4an lau urte bete zenittuan-eta. Muxu haundi bat aitatxo, amatxo, Martxel eta famelixaren partez.



Zorionak MAIER, IHINTZA eta GORKAri, aste honetan urtiak bete dittuzuelako. Famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri, EÑAUT, etxeko guztien partez. Batez be, Julenen partez.



Zorionak, JONE Ulazia, astelehenian 6 urte egingo dittuzu-eta. Famelixaren partez.



Zorionak IKER Jauregibarriari, gaur 7 urte egitten dittuzu-eta. Zorionak, baitta, tio IÑIGOri, zapatuan urtiak bete zittualako. Muxu haundi bana etxekuen partez.


errebal
kirolak
Errebal, 16
☎ 943 70 16 62
errebal
kirolak
Beherapen haundiak aurkituko dituzu


FISIOTERAPIA
ZENTRUA
Ane Mendia
970 kol. zkia.
Bidebarrietatik
Arraguetara aldatu gara
Urtarrilaren 14tik aurrera
helbide berrian izango gaituzu
Kirol lesioak
Masajeak
Erreuma
Tendinitisak
Bizkarreko minak
Esginzeak
Etxez-etxeko zerbitzua
Arragueta, 20 - behea
20600 EIBAR
Tel.: 943 530642
email-a: ane_mendia@hotmail.com

# Fernando Beorlegi artistari agur

*Domekan, urtarrilaren 6an, hil zen Fernando Beorlegi margolaria, 79 urterekin. Jaiotzez nafarra baldin bazen ere, bere bizitzaren zatirik handiena Eibarren eman zuen eta gure herrian garatu zituen bere lanik garrantzitsuenak. Errealitatea "itsusia" iruditzen zitzaiola-eta, bere gustura eraldatzen ahalegindu zen imaginazioz betetako koadroetan.*



Nafarroako Campanas edo Arrizabalaga herrian jaio zen Fernando Beorlegi 1928ko urtarrilaren 21ean. Hala ere, Eibarrera ezkondu zen eta 1956az geroztik gurean bizi izan da, guztiz eibartarra sentituta. Bere ikasketa-ibilbideari begiratuta, 1942-an, maristetan ikasi eta gero, Iruñean Javier Ciga Echandi margolariak zuen eskolan jardun zuen 1945era arte. Urte horretan familia osoa Lizarrara joan zen eta han Gustavo de Maeztu ezagutzeko aukera izan zuen. 1951-52 urteetan Madrilen egon zen, Espainiako hiriburuko museoak ikusten. Horrez gain, Chicharroren ikasle izan zen. Logroñoko Arte eta Ofizio Eskolan ikasi zuen 1953tik 56ra bitartean. Gerora bere margolanarengatik ezagunagoa izan bada ere, sasoi hartan eskultura zuen gogoko eta arlo hori lantzen eta ikasten jardun zuen.



## Eibarko artistekin elkarlanean

Herriko beste artistekin harteman oparoa izan zuen Beorlegik: 1967-68 urteetan Daniel Txopitea, Marino Plaza, Paulino Larrañaga eta Beorlegik Pagaegi kaleko ganbara zahar bat hartu zuten euren margoak



egiteko. Oteizak 1969an bisitatu zituen eta Debako Arte Eskolara lanera joatea proposatu zien. Udaleko Ego Ibarra batzordeak bere webgunean jasotzen duen moduan, *"ilusio handieneko urteak dira, baita protesta egitekoak ere, Arrateko elizan agertutako horma-irudien zaharberritzea eskasa baino eskasagoa izan zelako. Alberto Lopez arkitektoarekin diseinu-bulegoa jarri zuen Untzaga dorrean 1972-an. Sasoi berean Armeria Eskolan pintura klaseak ematen hasi zen eta bere estudioa San Cristobal kalera eraman zuen".*

1974an Goruntz taldea sortu zuen Iñaki Larrañaga eta Daniel Txopitearekin batera. Marino Plaza ere han zen. Eibarrek hirigintzaren aldetik dituen arazoekin beti kezkatu zen Beorlegi eta, hori dela eta, auzo elkarteetan sartu zen lanean eta 1976. urtean Gure Herria Auzo Elkartearen presidente izateko aukeratu zuten. 1978an, Illarramendiren zuzendaritzapean grabatu ikastaroa antolatu zuten Armeria Eskolan. Handik sortu zen Azido Taldea.

1979. urtean, berriz, Gasteizko erakusketa areto batean erakusketa-arduradun izan zen Beorlegi. Erakusketa hartan Arrastaluk, Oteizak, Ameztoyk, Goenagak eta beste hainbatek erakutsi zituzten euren lanak. Elgoibarko Ongarri taldearen eskutik Egur izeneko Arte Eskola antolatu zuen Beorlegik: pintura, eskultura eta grabatugintza klaseak ematen zituen.

## Errealitatearen eraldatzaile

Ruiz de Eguinoren komisariotzapean, 1993. urtean erakusketa handi bat antolatu zen Donostian Kutxak Garibai kalean duen erakusketa aretoan 'Fernando Beorlegi' izenburuarekin. Bere lan ia osoa erakutsi zuen han eta orduan ateratako katalogoa dugu Beorleguiren lana ulertzeko dokumentu nagusia. Rafael Castellanoren 'Fernando Beorlegui denboraren margolari' testua, berriz, margolariaren erretratu luzea eta sakona da. Bere bizipenak jasotzeaz gain, bere sormenaren iturriak azaltzen dizkigu.

Bere lanak askorentzat surrealistak edo hiperrealistak izan badaitezke ere, Beorlegik ez omen zuen gustoko sailkapen mota hori, bere lanek mugimendu bien elementuak zituztela onartuta ere. Berak sarritan esaten zuen moduan, *"errealitatetik ihes egiten dut, ezin itsusiagoa iruditzen zaidalako".* Artista joan zaigu, baina berak sortutako artelanetan betirako bizirik izango da bere izaeraren zati bat.



# EIBAR



Residencial
Hiri Erdi
Bizigunea

Eibarko inguru onenean bizi nahi duzu?

Gela bateko apartamentuak 180.000 €-tik

Gela biko etxebizitzak 260.000 €-tik

Ordainketarako erosotasuna eta zure etxebizitza saltzeko konponbidearekin

INFORMAZIOA ETA SALMENTA | Egogain kalea (Autobus geltokiaren ondoan) | 943 20 21 99

LANDU
Promozioak


UNBE
kirolgunea
ZORIONAK!
eta
2008.
URTE
kirolari
ON
UNBE
Eibarko Kirol Patronatoa
Patronato Municipal de Deportes de Eibar